

Jende gutxiago hurbildu zen arren, ederra izan zen Santo Tomas azoka

Lagun asko Bertso Txapelketaren finala ikusten geratuko ziren. Beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili baitzen Santo Tomas azokan. Hala ere, bildu ziren guztiek gazta dastatu, taloa jan eta sagardoa edateko aukera izan zuten. Kontxi Urdanpilletaren babarruna izan zen lehiaketan nagusi. Sagardo onena, aldiz, Izetarena.

Babarrun onena, Kontxi Urdanpilletarena

28 izan ziren babarrun lehiaketara animatu ziren herritarrek (iaz baino lagun gehiago). Kontxi Urdanpilletarentzat izan zen lehen saria. Bigarren, Idoia Orbegozok aurkeztutako babarrun kiloa izan zen. Hirugarren, Antonio Eizagirrek ekarritakoa.

Sagardo onena, Izetakoa

Sagardo lehiaketan, aldiz, 14 izan ziren aurkeztu ziren herritar ekoizleak. Epaimahaiaren iritziz, Izetako sagardoa izan zen onena. Bigarren tokian geratu zen Egioletak ekarritako sagardoa. Hirugarren saria Arratzain baserriarentzat izan zen.

Ramon Urdanpilletaren sagardoa ere, sarituen artean

Hori izan zen epaimahaiaren iritzia. Baina Santo Tomas azokara hurbildu zirenek ere, sagardoa dastatu eta iritzia emateko aukera izan zuten. Herritarrek emandako botoekin argitu zen hirugarren sari nagusia. Herritarren iritzia, ordea, bestelakoa izan zen. Izan ere, Ramon Urdanpilletaren sagardoa izan zen dastaketa irekian nagusitu zena.



KONTXI URDANPILLETA POZIK ZEN LEHEN SARIAREKIN.



AZOKARA AZALDU EZ BAZEN ERE, TXAPELA IZETARENTZAT IZAN ZEN.

Akabo eguberrietako lehen txanpa



Abenduaren 19an eta 20an Zumarte Musika Eskolakoak Sutegin aritu ziren.



Abenduko azken egunetan, ekitaldi ugari izan da herriko frontoian.



Udarregiko gaztetxoak kantari irten ziren abenduaren 22an.



Haur Eskolakoak asto eta guzti atera ziren abenduaren 23an.



Presoen aldeko Olentzero ere iritsi zen abenduaren 24an.



Abenduaren 24ak irudi politak utzi zituen.